

EKONOMIA ETA FINANTZAK 2019

AURREKO DENBORALDIAK

Hartzekodunen konkurtsoaren ondorengo garaia eta jokalarien salmentagatiko diruak eta telebistagatiko kopuruen hazkundeak ekarri zuen zorren kitapen azkarrak Anoetagatiko erreformaren inbertsioaren eraginaren garaira pasa arazi zituen Realaren kontuak lehengo urtean. Testuinguru honetan, duela 12 hilabete aztertzen genituen kontuek dagoeneko azaltzen zuten europan maiz jokatzeko eta abonatu, babesle-publizitate eta partida eguneko estadioko diru sarrerren hazkundeak soilik ahalbidetu zezaketela jokalarien salmenta behar argi bat bezala ekiditea aurrekontua orekatzeko.

GAUR EGUNGO EGOERA ETA TESTUINGURUA

2018-19 denboralidari dagozkion eta pasa den ekainean itxitako kontuetan erakundearen ondasunen hazkundera aurrera joan dela argi ikusten da sortutako 7 milioiko mozkinekin. Esan beharra dago, edonola, berriro ere ez-ohiko sarrerek (Odriozolaren salmentak eta Jonathasen salmentagatiko diru-sarrera lortzeko hitzarmenak) orekatzeko duela europan ez parte hartu izanagatiko sarrera arrunten jaitsiera.

Aipatzeko komenigarriak iruditzen zaizkigun hainbat gai:

- Sarrera eta gastuen kontuaren inguruan, baieztatzen da beste behin ere klubak dirua galtzen duela europan sartu edo jokalaririk saltzen ez badu. Izan ere, desoreka maila neurri bateraino iritsi da ezen Europa Leaguerako txartela motz gera daitekela (7-10 milioiko kopurua aurreikusten badugu, final laurdenak gaindituta bakarrik hazi litekeen kopurua gaur egun) kontuak parekatzeko. Aurrekoari, aurtengoan hasiko den (nahiz eta kontabilitate eragina soilik izan ez baitu diru irteera berririk eragiten) Anoetaren berrikuntzen amortizazioa gehituko bagenio, irakurketa harik eta nabarmenagoa bihurtzen da.
- Atentzioa ematen du aurtengo aurrekontura begira abonatu eta sarrerengatiko kopurua 600.000€ besterik ez haztea, abonatu eskaintza eta eserleku erabilgarri

aldetik Anoeta gaitasun betean den honetan. Aldiz, TB emanaldiengatik sarreretan bai 2 milioiko hazkundera aurreikusten dela. Igoera hau litekeena da abonatu kopuru eta bertaratzeengatik kopuru aldagarrietatik eratorria izatea.

- Orokorrean, esan beharra dago momentuz zorpetze maila ondasun kontabilizatuarekiko oso txikia dela, eta hala izanik, beharrezko balitz klubak aukera lukeela epe ertain/luzera finantziario iturriak eskuratzea hala beharko balu.
- Nabaria da azken hilabeteetan kluba utzi duten eta iritsi diren jokalarien artean soldata diferentzia. Izan ere, 3,2 milioi murriztu dira gizonezkoen futboleko lehen taldeko soldatak aurtengo denboraldiari begira.
- Aurreko denboraldiaren amaiera kaudimen aldetik oso justu itxi zen, Anoetako erreformengatik ordainketak zirela medio. Egoera honek auditoreen aldetik ikuskapen berezi bat eragin du zeinak, altxortegi aurreikuspenak gainbegiratu eta gero, kontuen egoeragatik iritzi orokor baliozko baten barruan gai hau espreski aipatzera eraman dituen.

Laburbilduz, inbertsio mailan Anoetaren erreformaren eraginarekin, lehen taldearen kirol gaitasunaren murrizketa ekiditeko beharrezko izango da aurtengo denboralditik hasita diru sarrerak bi arlotatik haztea lortzea: eraberritutako Anoetari abonatu-babesle-txartel salmenta-partida eguneko sarrerei probetxua ateratzea eta/edo europar lehiaketatarako postutan maiz bukatzea (Champions Leaguen bereziki). Hauetako bat edo bietan arrakastarik ez edukitzeak klubaren ondasuna murriztea edo jokalarien salmenta bidez orekatzea derrigortuko luke.